

Etxea: barekurkuiluarena, barearena ala putrearena

**Maidier IANTZI
GOIENETXE**

Barekurkuiluak segurua du etxea; berarekin darama. Bareak, aldiz, ez du etxe finkorik eta batzuetan harri tartean topatzen du goxotasuna eta babesa, bertzeetan landare artean, edo enbor huts baten barnean. Marimo ere etxerik gabe egon zen, amak, itsu eta zaharturik, ez zuelako lana aurkitzeko modurik. Zuhaitz baten gainean eraiki zuen bere eskuz bizilekua, eta poliziak handik bota nahi izan zituenean, lagunaren artean harresi bat osatuta lortu zuten polizia bidaltzea. Orain pailazo familiaren berotasunean bizi da, baina jakitun da denak ez direla hain zorteko.

Liburutegitik gai beraren inguruko irakurgaiak ekarri ditugu etxera semeak

eta biok, azalak erakarrita: “Irria” aldizkariaren ale bat, parkean kanpin-denda muntatuta iturrian hortzak garbitzen ari den sendi baten irudia duena, eta erabat harrapatu eta emozionatu nauen denda baten marrazkia duen “Yeom anderearen denda harrigarria” nobela korearra, han arrakasta handia izan duena. 24 orduz irekita dagoen janari denda honetara nahi duen guztietan etortzera gonbidatu du jabeak kalean bizi den Dokgo. Seulgo geltokian egiten du honek lo. Yeomek diru-zorroa galtzen du egun batean bertan, eta Dokgoren deia jasotzen du trenean doala, berak daukala eta itzuli nahi diola erranez. Hor hasiko da bien arteko harremana, eta bakoi-tzarentzat etxeak duen erranahia

ezagutuko dugu, Dokgok ere izan baitzuen etxea, familia, lana, eta Yeomentzat, seme-alabak izan arren, dendako langileak baitira bere sendia.

Bi istorio eder hauek bat egin dute eguneroko solasgai den etxe alokairuen eta salmenten prezioen goititzearekin eta Erreterria eremu tentsionatu izendatzearekin. Aitorpen horrek aukera emanen dio herri aitzindariari alokairuen prezioak mugatzeko eta bost etxe (!) baino gehiagoren jabe diren alokatzaileei gehienezko prezioa finkatzeko.

Barekurkuiluak bizitzeko erosi du etxea, barea alokairuan bizi da; putreak, ordea, negoziatorako darabil, etxea goxotasuna, jana, babesa eta gehiago izateko eskubidea dela ahantzita. •

Inbidia

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Inbidia onik ba ote dago? Nori galdetu, iritzi bat, gehienetan nahasi samarra. Batzuentzat izan daiteke inbidia “sanorik”, besteentzat inbidia guztiak dira txarrak. Sinadura nirea denez, nire nahaste-borrastea botako dut.

SSIFF’72 pasa berria dela aprobetxatuz, esango nuke askok famatuak direnekiko inbidia sentitu dutela, begitandu direla alfonbra gorrian pauso luzean astiro-astiro ibiltzen, ezker-eskuin sinadurak eta emojiak bailiran gorritutako irribarre eta muxu zaparradak banatzen, marka ezagun batek neurrira espresuki diseinatutako jantzian estu, goreneko glamourrean horditurik errepikatzen «eskerrik asko, ez dut hainbeste merezi,

eskerrik asko...» banitatearen gailurretik. Ulergarria, pentsatzen duenarentzat alfonbra gorriak erakutsitakoa dela desira duen elegantzia, estiloa, klasea eta glamourra.

Lagun batek maiz errepikatzen dit inbidia sanorik ez dagoela, aitzitik, gaixotasuna dela eta zabaldutako plaga dela eta, agian, arrazoi du; edo ez al gara gehiago bizi besteei begira eta besteei gustatu nahian norbere edertasuna eta dohainak zaintzen baino?

Itxurakeria merke saltzen den garai hauetan, kartoizko edertasunak, “postureoek” eta antzezpen artifizialek sortu plastikozko errealtateak eragin dirdirek ez naute itsutzen, baina onar

dezagun erakargarria dela eta eramaten gaituela besteak ederragoak direla eta besteen bizitza hobe dela sinestera gaixotasun bilakatu arte. Arriskuak arrisku, kanpotik jasotzen dugunari ezin diogu bizkar eman, harremandu beldurrik gabe, eman eta hartu, asko ikasten da-eta, baina bakoitzaren baloreen galbahetik pasa, selektiboak izan.

Zuk ahal duzu, alfonbra gorriaren fokua eta diseinuzko arropa argitsuetatik harago, elegantzia, edertasuna, klasea eta glamourra bera ere barrutik kanpora eraikitzen baitira. Ez duzu makillajerik ez antzerki edo pelikula baten atrezzo-rik behar, antzemango dizugu. Eta zuretzat, ba al da inbidia sanorik? •